## UDAL OSOKO BILKURA / SESION PLENARIA MUNICIPAL

## 2012ko URRIAK 23 / 23 - OCTUBRE - 2012

**TOKIA / LUGAR:** UDALETXEKO BATZAR ARETOA
SALA CAPITULAR DE LA CASA CONSISTORIAL DE DURANGO

**EGUNA / FECHA:** 23/10/2012

**HASIERA / INICIO:** 17:00

**BERTARATUAK / ASISTENTES:**

**PRESIDENTEA / PRESIDENTA (EAJ-PNV):**
Alkate andrea, Doña Aitziber Irigoras Alberdi andrea

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (EAJ-PNV):**
1. Alkateordea, Doña Maria José Balier Orobio-Urrutia andrea
2. Alkateordea, Don Iker Oceja Sobrón jauna
3. Alkateordea, Don Andoni Iruarrizaga Amantegi jauna
4. Alkateordea, Don Ander Gorrotxategi Legarra jauna
5. Alkateordea, Doña Goiztidi Díaz Basterra andrea
6. Alkateordea, Don Jon Kepa Garro Mendiolagarai jauna

Don Juan Ignacio Martínez Orea jauna

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (BILDU)**
Don Urdaspal Bolinaga Mallaviabarrena jauna
Doña Arrate Elkoro Zengotitabengoa andrea
Don Jon Bingen Oier Landabidea Aranburu jauna
Doña Eider Uribe Padilla andrea
Don Pedro Roberto Frontaura Basterra jauna
Doña Deunorone Bizkarra Larrea jauna

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (PSE-EE (PSOE)**
Doña Pilar Ríos Ramos andrea
Don Fernando Castillo Rodríguez PSE-EE (PSOE) jauna
Doña Idoia Agorría Martínez andrea

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (PP)**
Don Juan José Gastañazatorre Urizar jauna
Don Adrian Castro Cebrian jauna

**ZINEGOTZIA / CONCEJAL (ARALAR)**
Don Iker Urkiza Quilez jauna

**EZ ETORTZEA JUSTIFIKATU DU/EXCUSA SU ASISTENCIA**
Don Daniel Maeztu Pérez jauna

**KONTU-HARTZAILE ORDEA / INTERVENTORA EN FUNCIONES**
Doña Maria Pilar Velasco Pérez andrea

**IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL**
Don Ramón Sorarrain Tolosa jauna

**IZAERA / NATURALEZA:** OHIKOA / ORDINARIA
**DEIALDIA / CONVOCATORIA:** LEHENA / PRIMERA

Alkate andreak batzarrari hasiera eman ondoren, 17:00ak direnean, bilera honetako gai-zerrenda osatzen duten asuntoak eztabaidatzeari ekin zaio. Gaiak ondorengo hauek dira:

Abierta la sesión por la Alcaldesa-Presidenta, siendo las 17:00 horas, se pasó a tratar los temas que componen el Orden del Día de la presente sesión y que son los siguientes:

**BAT.- BIDEZKOA BALITZ, AURREKO AKTEN ZIRRIBOARREN IRAKURKETA ETA ONARPENA, 2012KO UZTAILAREN 17KO OHIKOA ETA 2012KO IRAILAREN 25EKO EZ OHIKOA.**

**UNO.- LECTURA Y APROBACION DE LOS BORRADORES DE LAS ACTAS DE LAS SESIONES ANTERIORES, CORRESPONDIENTE A LA ORDINARIA DE 17 DE JULIO Y EXTRAORDINARIA DE 25 DE SEPTIEMBRE, AMBAS DE 2012.**

IRAKURRI OSTEAN aurreko batzarreko akta-zirriborroaK, 2012ko uztailaren 17koa ohikoa eta 2012ko irailaren 25eko ez ohikoa hain zuzen ere.

DADA LECTURA a los borradores de las Actas de las sesiones anteriores, correspondientes a la Ordinaria de 17 de Julio y Extraordinaria de 25 de Septiembre, ambas de 2012.

BOZKETA egin ostean, Udaleko Osoko Bilkurak gehiengoaren botoarekin, Bilduko Bolinaga Mallaviabarrena jaunaren eta Elkoro Zengotitabengoa andrearen abstentzioarekin, ez baitzen aipatutako bileran egon, **ONARTU EGITEN DU 2012ko uztailaren 17ko osoko bilkuraren ohiko akta**.

PREVIA votación realizada al efecto, el Ayuntamiento Pleno, por mayoría, con la abstención del Concejal Sr. Bolinaga Mallaviabarrena (Bildu) y de la Concejala Sra. Elkoro Zengotitabengoa (Bildu) dada su inasistencia a la sesión, **APRUEBA** el **Acta** del **Pleno Ordinario** de **17 de Julio de 2012.**

Halaber, Udaleko Osoko Bilkurak gehiengoaren botoarekin, Aralarreko Maeztu Perez jaunaren abstentzioarekin, ez baitzen aipatutako bileran egon, **ONARTU EGITEN DU 2012ko irailaren 25eko Osoko Bilkuraren ez ohiko akta.**

Asimismo, el Ayuntamiento Pleno, por mayoría, con la abstención del Concejal Sr. Maeztu Perez (Aralar) dada su inasistencia a la sesión, **APRUEBA** el **Acta** del **Pleno Extraordinario** de **25 de Setiembre de 2012.**

**BI.- INTERESDUN GAIEN BERRI EMATEA:**

**DOS.- DACIÓN DE CUENTA DE ASUNTOS DE INTERÉS:**

* **Irigoras Alberdi alkate-andrea (EAJ/PNV)**: Eman beharreko informazioa dagokion Batzordean emanda dago, beraz ez dago Pleno honetan adierazteko konturik.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Toda la información pertinente ya ha sido ofrecida en la correspondiente Comisión, por lo que no queda nada más que tratar al respecto en este Pleno.

Udalbatza jakitun eta ados adierazten da.

El Ayuntamiento Pleno se da por enterado.

**HIRU.- BIDEZKOA BALITZ, BIDE PUBLIKOAN TERRAZAK ETA MAHAIAK JARTZEA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA BEHIN-BEHINEKO ONARPENA. (HIRIGINTZA, OBRAK ETA ETXEBIZITZA BATZORDEAREN IRIZPENA DUENA 2012KO URRIAREN 17KOA).**

BIDE PUBLIKOAN terrazak eta mahaiak jartzea arautzeko irekitako espedientea ikusirik.

Aipaturiko Ordenantzari buruz Idazkaritzak luzatutako txostena ikusirik.

2012ko urriaren 17ko Hirigintza, Obrak eta Etxebizitza informazio Batzordeak, gehiengoaren botoarekin, aipatutako ordenantzaren aldeko irizpena ematea onesten du.

* Idazkari Orokorra **Sorarrain Tolosa jaunak**: 2012ko maiatzaren 23an Hirigintza batzordeak bide publikoan terrazak eta mahaiak jartzeko ordenantza- lanei hasiera eman zien. Udal talde politikoen eta sektorearen ekarpen desberdinak aztertu ondoren, hasierako onespenerako testua aurkezten da; ordenantza hau hitzaurre bat, lau kapitulu eta 35 artikuluz osatuta dago eta, laburbilduz, honako puntuak arautzen ditu:

- Eremuak.
- Instalazioaren baldintzak.
- Araubide juridikoa.
- Araubide disziplinarioa.

Hasierako onespena korporazioaren osoko bilkurari dagokio, apirilaren 2ko Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen 29. artikuluan. Aipatu legearen 47. artikuluaren arabera, akordioak, bertaratutako zinegotzien gehiengo sinplea behar du.

Hirigintza batzordeak 2012ko urriaren 17an egindako bilkuran aldeko irizpena eman zuen eta honako proposamen hau luzatzen dio Udalbatzari:

**TRES.- APROBACIÓN INICIAL, SI PROCEDE, DE LA ORDENANZA MUNICIPAL REGULADORA DE LA INSTALACIÓN DE TERRAZAS Y VELADORES EN LA VÍA PÚBLICA. (DICTAMINADO POR LA COMISIÓN INFORMATIVA DE URBANISMO, OBRAS Y VIVIENDA DE 17 DE OCTUBRE DE 2012).**

DADA CUENTA de la situación en que se encuentra el expediente incoado para la regulación de la instalación de terrazas y veladores en la vía pública.

A la vista del Informe emitido por la Secretaría General en orden a la tramitación de dicha Ordenanza.

La Comisión Informativa de Urbanismo, Obras y Vivienda, en sesión celebrada el 17 de Octubre de 2012, emite dictamen mayoritariamente favorable a la aprobación inicial de la referida Ordenanza.

* Secretario General **Sr. Sorarrain Tolosa**: El 23 de mayo de 2012 la Comisión de Urbanismo puso en marcha la elaboración de la ordenanza para la instalación de terrazas y mesas en la vía pública. Tras el análisis de las diversas aportaciones presentadas, tanto por los grupos políticos como por el sector hostelero, se presenta el texto al pleno para su aprobación inicial, en el que a modo de resumen se recogen los siguientes puntos:

- Zonas.
- Condiciones para la instalación.
- Régimen jurídico.
- Régimen disciplinario.

Su aprobación inicial corresponde al Pleno, tal y como se especifica en el artículo 29 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local. Asimismo, en virtud del artículo 47 de esta misma ley, el acuerdo precisa de la mayoría simple de los concejales presentes en el Pleno.

La Comisión de Urbanismo, en la reunión realizada el 17 de octubre de 2012, emitió dictamen favorable, por lo que ahora se presenta la siguiente propuesta a este pleno:

1. Udal zerbitzu teknikoek egindako bide publikoan terrazak eta mahaiak jartzea arautzen duen udal ordenantza erregulatzaileari hasierako onespena ematea.

2. Jendaurrean erakutsiko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 30 egunez jarriko den iragarkiaren bidez.

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Txanda zabalduko dugu. Atzo bozeramaleen batzordean adierazi nuen bezala, lehenengo bueltan 5 minutu izango dira eta bigarrenean bi.

* **Urkiza Quilez jaunak (Aralar)**: Ordenantza honetan gauza berriak eta interesgarriak daude; hobekuntzak egin dira eta espero dugu ondo joatea martxan ipintzerakoan. Merkatariek ere parte hartu dute eta beraiek egindako ekarpen batzuekin ados gaude. Oso garrantzitsua da ordenantza honi jarraipena egitea beste ordenantza batzuekin gertatutakoa errepikatu ez dadin. Guk alde bozkatuko dugu.

* **Gastañazatorre Urizar jaunak (PP)**: Aldeko botoa emango dugu, kontuan izanda aintzat hartu direla +Dendak elkarteak egindako proposamenak eta, Durangoko Udaleko teknikariek aztertu ostean, ahal izan diren guztiak barne hartu direla.

* **Rios Ramos andreak PSE-EE (PSOE)**: Lehenik eta behin, gogorarazi nahi dugu Durango zerbitzuhiria dela eta ostalaritza Durangon bizitasun handiko sektorea dela. Eustaten arabera, 2011n, 150 establezimendu baino gehiago zeuden Durangon, eta kopuru hori igo egin da, gainera.

Gure ustez, baina, azken urteotan utzikeria handi samarrez jokatu da arlo honetan, terrazak nahierara jarri baitira, arau jakinik bete gabe, eta horrek kaosa eragin du azkenik. Alderdi Sozialista, egoera horretaz oharturik, luze zeraman terrazen gaia ganoraz arautu zedin eskatzen. Ados gaude aurkeztutako araudi honekin, eta bat gatoz Aralarrekin; izan ere, urratsak egin ahala ohartuko gara inon hutsik egiten ote duen, eta horren arabera egingo ditugu doiketak. Alabaina, gure ustez, Udalak

1. La aprobación inicial de la ordenanza municipal efectuada por los servicios técnicos municipales para la regulación de la instalación de terrazas y mesas en la vía pública.

2. Su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia y su exposición pública durante un plazo de 30 días.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Abriremos el turno. Tal y como indiqué en la Junta de Portavoces de ayer, en la primera vuelta cada intervención contará con cinco minutos y dos en la segunda.

* Concejal **Sr. Urkiza Quilez (Aralar)**: En esta ordenanza se recogen propuestas novedosas e interesantes; se han realizado ciertas mejoras que esperemos que tras su puesta en marcha, se desarrollen satisfactoriamente. También ha contado con la participación de los comerciantes, y estamos de acuerdo con algunas de sus aportaciones. Por otra parte, nos parece de vital importancia que se efectúe un seguimiento adecuado para que no suceda lo sucedido en otras ocasiones con diversas ordenanzas. Votaremos a favor.

* Concejal **Sr. Gastañazatorre Urizar (PP)**: Vamos a votar a favor habida cuenta de que las propuestas dirigidas desde + Dendak, y una vez examinadas por el equipo técnico del Ayuntamiento de Durango, han sido asumidas todas las que han sido posibles.

* Concejala **Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE)**: En primer lugar queremos decir que Durango es una ciudad de servicios y la hostelería en Durango es una parte importante que genera mucha actividad. El EUSTAT en el 2011, contaba con más de 150 establecimientos y esta cifra ha ido a más.

Nos parece que en los últimos años se ha hecho dejadez en el sentido que no se han regularizado cantidad de terrazas que se han ido colocando, y la situación ha sido caótica, de hecho, el Partido Socialista llevaba tiempo solicitando la regulación en condiciones. Estamos de acuerdo con esta regulación, coincidimos con Aralar en que comience a andar y ya se verá, se podrán realizar ajustes según se vea su aplicación. Sin embargo, creemos que el Ayun-

eredu izan behar du irisgarritasunaren legea ezartzeko orduan, distantziak zehazteko orduan eta abar. Ez du, haatik, horrela jokatzen, eta adibide bat jarriko dut: Udaleko fatxada batean, udaltzaingoaren bi automobil ditugu aparkatuta; zenbait paperontzik ere beharko ez luketen eremua hartzen dute eta abar.

Guk ere oso zorrotz jokatu behar dugu kontu honetan, halaxe ari baikatzaizkio eskatzen lokal askori. Ordenantza hau onuragarria izango da ostalarientzat baina baita herritarrentzat ere. Nabarmendu egin nahi dugu hori. Orain arte arazoak sortu izan dira, hau dela eta bestea dela; alabaina, ordenantza honek kontu asko argituko dizkie bai ostalariei baita bisitari edo bezeroei ere. Aldeko botoa emango dugu guk.

* **Landabidea Aranburu jaunak (Bildu)**: Azken urteetan Durangon terrazen fenomenoa asko hedatu da eta agerian geratu da indarrean dagoen ordenantza ez dela errespetatzen ari. Honek herriko plaza asko egoera tamalgarrian aurkitzea eragin du.

Honen aurrean, bide publikoan terrazak eta mahaiak jartzea arautzen duen ordenantza berri bat egitea ondo deritzogu.

Eztabaida honetan herriko espazio publikoen gaia lantzen da eta ondorioz durangarren eta komertzioen arteko erabilera partekatua erabakitzeaz gain, eremu publikoen kudeaketa eztabaidatzeko beharra ikusten dugu, ez baitugu uste ordenantza hau denik tresna egokiena honetarako.

Ordenantza hau egiten egon garen bitartean, eragileen ekarpenak jaso ditugu berau osatzeko. Beraz egia da parte hartzea egon dela, baina alor honetan asko dugu hobetzeko. Benetako parte hartzea sustatu behar dugu herrian, elkarte baten ekarpenak ez dira nahikoa izan behar, ordenantzaren eraginpean dauden gainontzeko herritarren parte hartzea lortu behar dugu. Anbizio gehiagorekin jokatu behar dugu gai honetan. Asko dugu hobetzeko.

tamiento tiene que dar ejemplo con la ley de accesibilidad, las distancias que establece y demás; y no es el caso, y por poner un ejemplo tenemos en la fachada del Ayuntamiento dos coches de policía municipal aparcados, determinadas papeleras que ocupan un espacio que no deberían hacerlo, etc.

Tenemos que ser muy escrupulosos en ello porque estamos exigiendo a muchos locales que lo hagan. Queremos insistir en que creemos que es una ordenanza beneficiosa no solo para la hostelería sino también para los vecinos y vecinas. Hasta ahora ha habido determinados problemas y creemos que con esta ordenanza se va a aclarar, y también para los visitantes o clientes. Adelantamos nuestro voto a favor.

* Concejal **Sr. Landabidea Aranburu (Bildu)**: Durante estos últimos años el fenómeno de las terrazas se ha extendido de forma espectacular en Durango, y es evidente que no se está respetando la ordenanza en vigor, debido a lo cual, muchas plazas del municipio se encuentran en una situación lamentable.

Ante esta situación, vemos con buenos ojos la elaboración de una nueva ordenanza que regule la instalación de terrazas y mesas en la vía pública.

Este debate incluye también el tema de los espacios públicos del municipio, por lo que además de acordarse el uso compartido de dichos espacios por parte de la ciudadanía y el comercio, vemos asimismo la necesidad de que el debate se extienda a la gestión de los espacios públicos, ya que no creemos que esta ordenanza sea el instrumento más adecuado para ello.

Durante el proceso de ejecución de esta ordenanza, hemos contado con las aportaciones de los agentes de este sector, por lo que es cierto que se trata de una ordenanza participativa, aunque también es cierto que nos queda aún mucho que mejorar. Debemos impulsar una participación real en el municipio; no debemos pensar que recibir las aportaciones de una asociación es suficiente, porque lo que debemos lograr es la participación de toda la ciudadanía a la que afecta la ordenanza. Debemos actuar con mayor ambición en este asunto. Nos queda mucho que mejorar.

Hasieran esan bezala, gaur terrazak arautzen dituen beste ordenantza bat onartuko dugu, gaur egun indarrean dagoena eta aplikatzen ez dena ordezkatuko duena.

Ordenantza berri hau ez da paperean gelditu behar, horrexegatik, jarraipen zorrotza egitea exijituko dugu.

Gainera, herriaren onerako aplikatzen dela bermatu behar dugu, eta hala gertatu ezean aldaketak proposatuko ditugu beharrizanei egokitzeko. Beraz froga fase batean dagoela esan dezakegu.

* 5. Alkate Ordea **Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV)**: Guk ere geure aldeko bozka aurresaten dugu. Garrantzitsua da Durangoko terrazak ondo arautzea eta ordenantza praktikan jartzea.

Praktikan jartzen den guztia bezala, ibiltzen hasten garenean askotan konturatzen gara non egiten dugun estropezu eta ordenantza guztiak bezala, uste dugu, honek ere dinamikoa izan behar duela eta, akatsik sortzen baldin bada, lehen Aralarreko Bozeramaileka aipatu duen moduan, uste dugu garaiz egongo garela zuzentzeko.

Aldeko botoa emango diogu eta eskerrak eman nahi dizkiogu Durangoko merkatariei parte hartzeagatik.

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Ez bada behar bigarren bueltarik bozkatu egingo dugu.

BOZKETA egin ostean.

UDALEKO OSOKO BILKURAK, aho batez,

LEHENA.- Udal Zerbitzu Teknikoek egindako **Bide Publikoan terrazak eta mahaiak jartzea arautzen duen Udal Ordenantza erregulatzaileari HASIERAKO onespena ematea.**

Tal y como he indicado al comienzo de mi intervención, hoy vamos a aprobar una nueva ordenanza para la regulación de las terrazas, la cual viene a sustituir la ordenanza que aun estando hoy en día en vigor no está siendo aplicada.

Esta nueva ordenanza no debe quedar en el papel, por lo que exigiremos que se le realice un riguroso seguimiento.

También debemos garantizar que será aplicada en beneficio de la ciudadanía, por lo que si no lo es, propondremos modificaciones para que se adecue a las necesidades de los ciudadanos. Por lo tanto, podría decirse que se encuentra en periodo de prueba.

* 5ª Tnte. de Alcalde **Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV)**: Nosotros también adelantamos nuestro voto a favor. Es realmente importante que el tema de las terrazas sea adecuadamente regulado y que la ordenanza sea puesta en práctica.

Como todo cuanto se pone en práctica, en muchas ocasiones es en el momento en que se pone en marcha, cuando nos percatamos de dónde cojea; asimismo, creemos que como todas las ordenanzas, esta también debe ser dinámica, por lo que en el caso de que se advierta algún defecto, tal y como ha mencionado el Portavoz de Aralar, seguro que estaremos a tiempo de corregirlo.

Votaremos a favor, y quisiéramos mostrar nuestro agradecimiento a los comerciantes de Durango por su participación.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Si no es necesaria una segunda vuelta, procederemos a votar.

PREVIA votación realizada al efecto.

AL AYUNTAMIENTO PLENO, por unanimidad, acuerda:

PRIMERO.- APROBAR **INICIALMENTE** la **Ordenanza municipal reguladora de la instalación de terrazas y veladores en la vía pública**, conforme al texto elaborado por los Servicios Técnicos Municipales.

BIGARRENA.- **Jendaurrean erakutsiko da** eta entzunaldia ere egingo da interesatuekin, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, **HOGEITA HAMAR (30) EGUNEZ** jarriko den iragarkiaren bidez, halaxe ezartzen baitu toki araubidea arautzen duten oinarrien 7/1985 Legearen 49. artikuluak erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko.

HIRUGARRENA.- Oharrak ebatzi ondoren, baldin eta baleude, behin betiko onarpen akordioa hartuko da eta testu osoa argitaratuko da, betiere, gorago aipatutako 7/1985 Legearen 70.2 artikuluak ezartzen duenarekin bat etorriz. Ordenatzaren hasierako onarpenari erreklamaziorik aurkeztu ezean jendaurreko epe barruan, behin behineko akordioa behin betiko bilatuko da.

SEGUNDO.- Someterla a **información pública** y audiencia a los interesados, mediante Anuncio en el Boletín Oficial de Bizkaia, durante el plazo de **TREINTA (30) DÍAS**, según lo establece el Artº. 49 de la Ley 7/85, reguladora de las Bases del Régimen Local, para la presentación de reclamaciones y sugerencias.

TERCERO.- Una vez resueltas las observaciones, si las hubiere, se adoptará acuerdo de aprobación definitiva y se procederá a la publicación íntegra de su texto, de conformidad con lo dispuesto en el Artº. 70.2 de la Ley 7/85, anteriormente mencionada. En el supuesto de que no se presenten reclamaciones en relación con la aprobación inicial de la Ordenanza en el plazo de información pública, se entenderá definitivamente adoptado el Acuerdo hasta entonces provisional.

**LAU.- BASERRITARREN MERKATU ERREGLAMENDUAREN ERREKLAMAZIOA ETA BEHIN-BETIKO ONARPENA, BIDEZKOA BALITZ. (OGASUN, PERTSONALA ETA UDALTZAINGOA BATZORDEAREN IRIZPENA DUENA 2012KO URRIAREN 3KOA).**

KONTUAN IZANDA, 2012ko uztailaren 17ko osoko bilkuraren akordio bidez Baserritarren Azokaren araudia onartu zela hasiera baten, betiere, dagokion espedientean jasotako testuaren arabera.

JENDAURREKO epea 2012ko urriaren 1ean amaitu zen, epe honen barruan interesatuen iritzia entzuteko aukera eman zelarik. Jendaurreko epea Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 144. zenbakian argitaratu zen, 2012ko uztailaren 26an.

IKUSIRIK jendaurreko informazio epearen barruan alegazio bat aurkeztu dela Udal honetan:

**CUATRO.- RESOLUCIÓN DE LA RECLAMACIÓN Y APROBACIÓN DEFINITIVA, SI PROCEDE, DEL REGLAMENTO DEL MERCADO BASERRITARRA. (DICTAMINADO POR LA COMISIÓN INFORMATIVA DE HACIENDA, PERSONAL Y POLICÍA MUNICIPAL DE 3 DE OCTUBRE DE 2012).**

DADA CUENTA de que mediante Acuerdo Plenario de 17 de Julio de 2012 se aprobó con carácter inicial el Reglamento del Mercado Baserritarra, conforme al texto que figuraba en su correspondiente expediente.

RESULTANDO que sometido el mismo a información pública y audiencia a los interesados hasta el 1 de Octubre de 2012, mediante Anuncio publicado en el Boletín Oficial de Bizkaia nº 144, del Jueves 26 de Julio de 2012.

RESULTANDO que durante el período de información pública se ha presentado en este Ayuntamiento la siguiente alegación:

- Guillermo Oarbeaskoa Areitio jaunak aurkeztua, 2012.08.21ean (NAN zk. 72.250.930-H), + **Dendak Durangaldeko merkatarien elkartearen izenean** (IFK zk. G-48.411.235). Sarrera-erregistroaren zk.: 2012007179, 2012.0823koa.

OGASUNA, pertsonala eta udaltzaingoa informazio batzordeak ALDEZ AURREKO irzipena eman zuen 2012ko urriaren 3an egindako batzarrean.

* Idazkari Orokorra **Sorarrain Tolosa jaunak**: 2011ko irailaren 7an, Ogasun batzordeak, honako erregelamendua burutzeko lanei hasiera eman zien. Araudi honen helburua nekazaritzako produktuen eta merkatu plazan saltzen diren beste produktu batzuen salmenta arautzea da.

Udalbatzak 2012ko uztailaren 17an, behin-behingoz onartu zuen proposatutako testua. Aipaturiko akordioa jendaurrean ezarri zen uztailaren 26ko Bizkaiko Egunkari Ofizialean argitaratutako iragarkiaren bitartez; aipatutako epea 2012ko urriaren 1era arte luzatzen zen.

Jendaurreko epean alegazio bakarra aurkeztu zen; alegazio honetan +Dendak elkarteak merkatuaren batzordean ordezkaritza izatea eskatzen du.

Ogasun batzordeak 2012ko urriaren 3an aldeko irizpena ematen du eta honako proposamena luzatzen dio udalbatzari:

1. +Dendak Durangoko merkatari elkarteak aurkeztutako alegazioa onestea.

2. Espedientean azaltzen diren terminoetan merkatu plazako erregelamendua behin betikoz onartzea, +Dendak Durangoko merkatari elkarteak merkatuko batzordean bi kide izango dituelarik.

- Formulada en 21.08.12 por Don Guillermo Oarbeaskoa Areitio (D.N.I. nº 72.250.930-H), en su condición de Presidente de la ***Asociación de Comerciantes de Durangaldea "+ Dendak"*** (C.I.F. nº G-48.411.235), con Registro de Entrada nº 2012007179 de 23.08.12.

PREVIO dictamen mayoritariamente favorable emitido por la Comisión Informativa de Hacienda, Personal y Policía Municipal en sesión celebrada el 3 de Octubre de 2012.

* Secretario General **Sr. Sorarrain Tolosa**: El 7 de septiembre de 2011, la Comisión de Hacienda procedió a la elaboración de este reglamento, cuyo objetivo se concreta en la regulación de la venta tanto de los productos agrícolas como de los otros productos que se exponen para su venta en la plaza del mercado.

El Pleno del día 17 de julio de 2012 dio su aprobación inicial al texto presentado, tras lo cual el acuerdo fue expuesto públicamente mediante su anuncio en el Boletín Oficial de Bizkaia del 26 de julio, y su plazo de exposición pública se extendió hasta el 1 de octubre de 2012.

Durante dicho plazo se presentó una única alegación, de la mano de la asociación + Dendak, la cual solicitaba tener representación en la comisión para la plaza del mercado.

La Comisión de Hacienda en su reunión del 3 de octubre de 2012 dictaminó a favor de dicha alegación, por lo que presenta al Pleno la siguiente propuesta:

1. Que sea aceptada la alegación presentada por la asociación de comerciantes +Dendak.

2. Que se apruebe definitivamente el reglamento de la plaza del mercado, en los términos que se recogen en el expediente, incluyendo el acuerdo para que de la asociación de comerciantes de +Dendak cuente con dos representantes en la comisión de la plaza del mercado.

3. Behin betiko akordioa eta merkatu plazako erregelamenduaren testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta iragarki taulan argitaratzea.

3. Que el acuerdo definitivo y el texto íntegro del reglamento de la plaza del mercado sea publicado tanto en el Boletín Oficial de Bizkaia como en el tablón de anuncios.

Presidenteak eztabaida-tartea irekitzen du. Ondorengo zinegotziek hartzen dute parte:

La Presidenta abre el turno de debate, produciéndose las siguientes intervenciones:

* **Urkiza Quilez jaunak (Aralar)**: Merkatarien erreklamazioa ondo ikusten dugu, erregelamendua bera eta parte-hartzea hobetzen baitu, eta horrekin guztiz ados gaude. Uste dugu merkatu plazako batzordeak bultzada garrantzitsu bat emango diola merkatuari berari.

* Concejal **Sr. Urkiza Quilez (Aralar)**: Vemos positiva la reclamación efectuada por los comerciantes, puesto que resulta beneficiosa tanto para el reglamento como para la participación. Estamos totalmente de acuerdo. Creemos que la comisión de la plaza del mercado dará un fuerte empujón al mercado.

Aralarretik prest egongo gara euren erreklamazioei erantzunak emateko. Kasu honetan ere alde bozkatuko dugu.

Asimismo quisiera señalar que desde Aralar hemos estado siempre dispuestos a ofrecer respuesta a sus reclamaciones. Finalmente, añadir que en este punto volveremos a votar a favor.

* **Rios Ramos andreak PSE-EE (PSOE)**: Ados gaude, eta, beraz, aldeko botoa emango dugu. Ordenantza honen bidez, lehen urratsa egingo dugu lehen sektorea bultzatzeko eta berpizten saiatzeko bidean.

* Concejala **Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE)**: Estamos de acuerdo, vamos a votar a favor y creemos que con esta ordenanza se da un primer paso de apoyar e intentar revitalizar al sector primario.

Lehen urratsa da hau, eta, gure ustez, bide horretan aurrera jarraitzeko, jarduerak antolatu beharko lirateke merkatariekin eta baserritarrekin batera, merkatu plaza dinamizatze aldera. Horrenbestez, mesedez eskatzen dugu kontu-sail bat eslei dadila dinamizazio hori aurrera atera ahal izateko. Oso ondo deritzogu ordenantzari; hastapen-urratsa da, baina berriz ere nabarmendu behar dugu zein garrantzitsua den merkatu plaza era askotako jardueren bidez dinamizatzea, Durangoko bereizgarrietako bat bilaka dadin.

Damos un primer paso, en el sentido que creemos que hay que organizar actividades junto con los comerciantes y baserritarras que dinamicen la plaza del mercado. Con ello estamos pidiendo que, por favor, se asigne partida económica para que esa dinamización se pueda llevar a cabo. Vemos que esta ordenanza está muy bien, es un inicio, pero insistimos en que es necesario dinamizar diferentes actividades para que la plaza del mercado sea un referente en Durango.

* **Elkoro Zengotitabengoa andreak (Bildu)**: Azokako partaideak batzordean egon ziren eta oso lagungarriak izan ziren araudia lantzerako orduan.

* Concejala **Sra. Elkoro Zengotitabengoa (Bildu)**: La comisión contó con la participación de los integrantes de la plaza del mercado, lo cual ha sido de gran ayuda a la hora de elaborar el reglamento.

Bildutik eskatu genuen Osoko Bilkuratik pasatu baino lehen eta bozkatu baino lehen, zirriborroa azokako partaideei pasatzea, eta horrela eginda ekarpen gehiago jaso genituen.

En su momento desde Bildu solicitamos que antes de que la propuesta se elevara al Pleno para su votación, se presentara su borrador a los integrantes de la plaza del mercado, ya que de dicho modo se han podido recoger aún más aportaciones.

Ikusita plan hau nahiko ondo joan dela, komeniko litzateke, beste batzuetan ere, zuzenean afektatuak direnekin lan egitea. Araudia badago eta orain eskatzen duguna da araudi hau betearaztea eta benetako jarraipena egitea. Eskatzen dugu baita ere, azoka berpizteko baliabideak ipintzea.

Por lo tanto, visto que este planteamiento ha resultado bastante positivo, sería conveniente que en futuras ocasiones también se trabajara en colaboración con las partes afectadas. Ya tenemos el reglamento; por lo que lo que lo que ahora reclamamos es que sea cumplido y que se le realice un seguimiento real. Asimismo solicitamos que se pongan los medios oportunos para la reactivación del mercado.

* 5. Alkate Ordea **Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV)**: Gogoraraztearren, 2011ko maiatzaren 22an hartu genuen azokari aldaketa emateko konpromisoa, hain zuzen ere gure hauteskunde programan baitzegoen, beraz, ez dago esan beharrik aldeko botoa emango diogula.

Pozik gaude baserritarrek ere parte hartu dutelako eta osotasun bat egon delako alderdi politikoen artean. Araudi hau, beste batzuek bezala, errespetatuko delakoan gaude. Guk behintzat, beti errespetatzen ditugu araudi guztiak.

Eta gogoratu nahi dut oso ondo dagoela azoka dinamizatu behar dela aldarrikatzea baina guk gogoratu nahi dugu gure 2012ko aurrekontuetan bageneukala partida bat berau aurrera eramateko.

* 5ª Tnte. de Alcalde **Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV)**: Quisiera recordar que el compromiso para transformar el mercado lo adquirimos el 22 de mayo de 2011, ya que así se recogía en nuestro programa electoral, por lo que sobra decir que votaremos a favor.

Estamos satisfechos con la participación de los baserritarras, así como con el acuerdo unánime de todos los grupos políticos. Creemos que este reglamento, como otros tantos, será respetado. Nosotros, por lo menos, siempre respetamos todos los reglamentos.

También quisiera recordar que aunque resulte legítimo reivindicar la necesidad de dinamizar el mercado, lo cierto es que en nuestros presupuestos para el 2012 se recogía una partida para la consecución de dicho objetivo.

BOZKETA egin ostean.

UDALEKO OSOKO BILKURAK, aho batez,

**LEHENA**.- "+ **Dendak**" Durangoko Merkatari Elkartearen izenean Guillermo Oarbeaskoa Areitio Jaunak aurkeztutako alegazioa **ONESTEA**.

**BIGARRENA**.- Espedientean azaltzen diren terminoetan **BASERRITARREN MERKATUKO ERREGLAMENDUA BEHIN BETIKOZ ONARTZEA** "+ Dendak" Durangoko Merkatari Elkarteak merkatuko Batzordean bi kide izango dituelarik.

PREVIA votación realizada al efecto.

AL AYUNTAMIENTO PLENO, por unanimidad, acuerda:

**PRIMERO.- ESTIMAR** la alegación presentada por Don Guillermo Oarbeaskoa Areitio, en nombre de Asociación de Comerciantes de Durango "+ **Dendak**".

**SEGUNDO**.- **APROBAR**, con carácter **DEFINITIVO**, la redacción final del texto del **REGLAMENTO DEL MERCADO BASERRITARRA**, en los términos obrantes en el expediente, otorgando a la Asociación de Comerciantes de Durango "+ Dendak" una representación de dos miembros en la Comisión del Mercado.

**HIRUGARRENA.**- Behin betiko Akordioa eta Baserritarren Merkatuko Erreglamenduaren testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Iragarki-taulan argitaratzea Apirilaren 2ko, 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan arabera indarrean sartuz.

**TERCERO.**- Publicar dicho Acuerdo definitivo con el texto íntegro del Reglamento del Mercado Baserritarra, en el Boletín Oficial de Bizkaia y Tablón de Anuncios del Ayuntamiento, entrando en vigor según lo previsto en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985.

**BOST.- ESKAERAK ETA ITAUNAK.**

- **Urkiza Quilez jaunak (Aralar):** Hurrengo urteetan parte hartu nahi dugu txosnetako eztabaidetan eta erabakietan. Alderdi guztien parte hartzea beharrezkoa dela uste dugu eta horregatik Alkateari eskatzen diogu eskari hau kontuan hartzea.

**CINCO.- RUEGOS Y PREGUNTAS.**

- Concejal **Sr. Urkiza Quilez (Aralar):** El año que viene solicitamos participar en el debate y en las decisiones que se tomen respecto a las txosnas. Creemos necesaria la participación de todos los grupos políticos, por lo que instamos a la Alcaldesa que tome en consideración nuestra petición.

Gai-zerrendan jasotako asuntoak amaitu ostean, eta 17:20ak direnean, alkate-presidenteak amaitutzat ematen du batzarra, eta akta jasotzeari ekiten zaio; eta nik, udalbatzako idazkari nagusia naizen honek, fede ematen dut.

Y HABIENDO finalizado con los asuntos comprendidos en el Orden del Día, siendo las 17:20 horas, por la Alcaldesa-Presidenta se da por finalizada la sesión, levantándose la presente Acta; de todo lo cual yo, como Secretario General de la Corporación, doy fe.